

Boluntariotza

1. [Zer da?](#)
2. [Boluntarioak behar dituzten Arabako elkarteak](#)
3. [Web interesgarriak](#)

1. Zer da?

[17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa](#). Lege honen ondorioetarako, pertsona fisikoek aurrera eramaten dituzten interes orokorreko ekimenen multzoa da boluntariotza, ekimen horiek honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Norberaren probetxurako ezer lortzeko asmorik gabekoak izatea eta elkartasunak bultzatuak izatea.
- Borondatezkoak eta askatasun osoz eginak izatea.
- Irabazi-asmorik ez duten erakundeen bidez eta programa edo egitasmo zehatzei jarraiki eginak izatea.
- Ordainsaririk gabeak izatea.
- Ordaindutako zerbitzu profesionalak inolaz ere ez ordezkatzeari.

Beraz: “Boluntariotza partaidetza sozialeko modu bat da, non pertsonak ordainsaririk gabeko lan solidariorako euren denbora, esperientzia, ezagutza, gaitasunak eta lana eskaintzen dituzten. Irabazi-asmorik ez duen gizarte-erakunde batekin kolaboratzeko modu pertsonala, librea eta altruista da”

2. Bolaruntarioak behar dituzten Arabako elkarteak

AEMAR. Esklerosi anizkoitzaren elkartea



Jarduera-eremua:

- ✓ Dibertsitate funtzionala
- ✓ Esklerosi anizkoitza duten pertsonak

Boluntariotza-programa

Elkarte honek puntualki egiten ditu boluntariotza lanak. Normalean egun bakarra irauten duten kanpainetarako behar dituzte boluntarioak. Burutzen dituzten kanpaina finkoak ondorengoak dira:

1. Saskiratu EAren alde kanpaina.

Sentsibilizaziorako eta, batez ere, dirua biltzeko kanpaina da. Buesa Arenan jokatzen den Baskoniaren partida batean txartelak saltzeko boluntarioak behar dituzte.

Partidaren data eta ordua Baskonia Fundazioak erabakitzen ditu, beraz, urte batetik bestera ezin dute jakin noiz ospatuko den. Kanpainaren iraupena 4 ordukoa da, gutxi gorabehera.

2. Busti zaitez kanpaina.

Uztailan ospatzen da beti, Gasteiz, Agurain eta Araiako igerilekuetan. Kanpaina honek sentsibilizaziorako jarduera bat burutzen du, non gaixotasuna aitzakiatzat hartuz metro batzuk igeri egiten diren. Egun horretan igerilekuetan dauden pertsona guztiek jardueran parte hartu dezakete, ondoren egiaztagiri bat emango zaielarik.

Boluntarioek ondorengo funtzioak bete behar dituzte:

- Kanpainaren triptikoak banatzea.
- Igeri egin diren metroen zenbaketa eta egiaztagirien banaketa.



- Merchandising produktuen salmenta: kamisetak, amantalak, eskumuturrekoak, poltsak, giltzatakoak, koadernoak...


3. Txokolatada solidariorako kanpaina. Abenduaren amaieran burutzen da Gasteizko Posta plazan.

Boluntarioek ondorengo funtzioak bete behar dituzte:

- Karpa, mahaia eta beharrezkoa izan daitekeen materialaren muntaketa.
- Txartel-salmenta.
- Txokolatea eta croissanten banaketa.
- Materiala biltzea.

✚ Kontaktua: Iratxe edo Laura. Tel.: 945 157561.
<http://asociacionaemar.com/euskera/> . info@asociacionaemar.com

Manuel Iradier Afrikanista



✚ Jarduera-eremua:

- ✓ Garapenerako lankidetzak
- ✓ Emakumea eta genero berdintasuna

✚ Boluntariotza-programa:

Elkarte hau 350 pertsonen osatzen dute, gehienak Arabakoak eta praktikan guztiak boluntarioak izan daitezkeenak. Hauentzat, garrantzitsuena boluntariotzaren esperientzia bizi eta gozatu nahi duen pertsona eta elkartearen arteko ezagutza da, hau da, elkarri eragin eta ezagutzeko aukera eskaintzen duen denboraldia da boluntariotza.

Baldintzei dagokienez, burutuko diren jardueren arabera zehaztuko dira, esaterako, boluntariotza kanpoan egiten baldin bada, adin nagusia izatea eta hizkuntzak menderatzea beharrezkoa da (ingeleza edo frantsesa, herrialdearen arabera), beti ere, elkartearekin kolaboratzen duten Afrikako herrialdeko toki erakundeek boluntariotza lana eskatzen badute.



Gazteagoak direnei dagokienez, adin txikikoak badira, euren tutore legalaren baimena nahitaezkoa izango da, eta kasu honetan egoitzan bertan egingo dira boluntariotza lanak, hau da, sentsibilizazio proiektuetan eta genero eta berdintasunari buruzko jardueretan, batez ere Araban bizi diren Afrikako etorkinen kolektiboarekin.

✚ Kontaktua: Luis Royero Tel.: 945147602 / 617814567 <http://www.iradier.org/africanista@iradier.org>

A.G.L.E. Arabako Gizarte Laneko Elkartea



✚ Jarduera-eremua:

- ✓ Komunitatea
- ✓ Gizarte bazterketa
- ✓ Emakumea eta genero berdintasuna
- ✓ Giza eskubideak
- ✓ Hezkuntza eta prestakuntza
- ✓ Immigrazioa

✚ Boluntariotza-programa

Boluntariotza programa honen oinarritzko helburuak, elkartearen jardueretan egunero lan egiten duen taldea mantentzea eta ahalik eta boluntario gehien lortzea dira. Programaren bidez, boluntarioak mantentzeaz gain, boluntariotza ekintzaren garapen egokia ahalbidetzen duten prestakuntza mekanismoak eskaintzen dituzte. Horretarako, garatzen diren proiektu eta arreta taldeei buruzko informazioa eta prestakuntza eskaintzea nahitaezkoa da. Programa bakoitzean boluntarioek bete beharreko funtzioak ondorengoak dira (beti ere profesional batek lagunduta):

- Premia egoeran dauden pertsona edo taldeei orientazioa eta aholkularitza ematea; entzuten, kotsultak erantzuten, laguntza eskaintzen...
- Pertsona eta gizarte-taldeei prestakuntza ematea; baloreetan hezten eta gizarte-gaitasunetan, osasun eta higiene ohituretan trebatzen.
- Programa bakoitzerako ikastaro espezifikoek prestakuntza, premia egoeran dauden taldeei arreta egiteko beharrezkoak diren lan tresnak eskainiz, esaterako: Loremaitea




zerbitzua, gurasotasun positiborako ikastaroa, garapen etapei buruzko ikastaroak, adin gabekoen zainketei buruzko ikastaroak. Sada programa, elikagaien manipulaziorako ikastaroa. Insola programa, lan-aholkularitzari buruzko ikastaroa, curriculum eta elkarriketa pertsonala. Programak ikastetxeetan, interakzio eta metodologia didaktikoari buruzko ikastaroa.

- AGLE elkarteko premia egoeran dauden pertsona eta taldeei laguntza eta arreta zuzena.

Ez dago inolako baldintzarik elkarteko boluntarioa izateko, hala ere, AGLEko programetan parte hartzen duten pertsona eta jarduerak ezagutzeko, boluntarioek prestakuntza jaso behar dute aurretik:

- Gizarte bazterketa
- Gazteak
- Emakumeak
- Haurtzaroa eta familia
- Etorkinak, errefuxiatuak, baztertuak
- Biztanleria

AGLE elkarteko programak ikasturte osoan zehar burutzen dira.


 Kontaktua: Lorena Salazar Bilbao. Tel.: 945 272753 / 651 458693
<http://www.asoagle.org/> ; info@asoagle.org

APDEMA
Adimen-egintzaren duten Pertsonen
Aldeko Arabako Elkarte



 Jarduera-eremua:

- ✓ Dibertsitate funtzionala

 Boluntariotza-programa:

APDEMA irabazi asmorik gabeko eta onura publikoaren deklarazioa duen Arabako elkarte da, adimen-egintzaren duten pertsonen eta hauen familien bizi-kalitatea hobetzea helburu duena.

Elkarte honen Aisialdi eta Partaidetza Sozialerako Zerbitzuan boluntario lanak egiten duten pertsonak oso garrantzitsuak dira.



Elkartearen eskaintza ondorengo programekin osatzen da: Aisialdi Programak eta Zentroak, Bidaia eta Udako Oporretarako Programa, Zahartze Programa, Boluntariotza Programa, Kirol Programa eta Autogestiorako Programa.

Baldintzak: 18 urtetik gora.

Erabilgarritasuna: hilero zehazten da.

Lankidetzak: ostegunetik ostiralera, 17:00etatik 21:00etara (ostegun eta ostiraletan lankidetzak puntuala, asteburuetan 17:00etatik 21:00etara).

- ✚ Kontaktua: Zerkabarren kalea 1, behea. Vitoria-Gasteiz. Tel. 945 144 633
<http://www.apdema.org/>. centrotlvitoria@apdema.org
Aisialdi eta Partaidetza Sozialerako Zerbitzua: serviciodeocio@apdema.org

ASAFES



- ✚ Jarduera-eremua:

- ✓ Komunitatea
- ✓ Gizarte bazterketa
- ✓ Dibertsitate funtzionala
- ✓ Soziosanataria
- ✓ Osasuna

- ✚ Boluntariotza-programa:

Urte osoan zehar. Baldintzak: adin nagusia izatea eta astean ordubete edo bi ordu libre izatea. Esperientzia berriak bizitzeko grina.

- ✚ Kontaktua: Josemi edo Fatima <http://www.asafes.org/weus/index.asp> ;
acogida@asafes.org



ASASAM (Buru Gaixotasuna duten Pertsonen eta Senideen Aiarako Elkartea)



buru gaixotasuna duten pertsonen
eta senideen aiarako elkartea
asociación ayulesa de familiares y
personas con enfermedad mental

Jarduera-eremua:

- ✓ Dibertsitate funtzionala
- ✓ Soziosanitarioa
- ✓ Osasuna
- ✓ Bestelakoak: Osasun mentala

Boluntariotza-programa:

ASASAMen Boluntariotza Planak buru gaixotasuna duten pertsonen bitzta soziala sustatzea helburua du. Normalizazio sozialerako baliabide, erreminta eta programekin batera, boluntarioen ekintza oso garrantzitsua da pertsonari bere ingurune komunitarioan barneratzen eta gizarteratze prozesua osatzen laguntzeko.

Elkartean boluntario lanetan hasi baino lehen, boluntarioek prestakuntza espezifikoa jasoko dute, ondorengo gaiak landuz: osasuna eta buruko gaixotasuna, gaitz hau pairatzen duten pertsonen tratamendu osoa zertan datzan, boluntariotzaren legea, baliabideak... Modu honetan boluntarioak taldea eta elkarteari buruzko oinarrizko ezagutza jasoko du.

ASASAMeko boluntarioek ondorengoetan lan egin dezakete:

- Gizarteratzea eta laneratzea – Zentro okupazionala
- Gizarte Ekintza
- Zentro Psikosoziala
- Esku-hartze komunitarioa

Boluntarioak burutu ditzakeen lanak eta funtzioak:

- Profesional baten esku-hartzea beharrezkoa ez den egoeratan, buruko gaixotasuna duen pertsonari laguntza ematea (medikuarengana lagundu, erosketak egin, tramite burokratikoak, lekualdatzeetan eta kanpoan egiten diren jardueretan lagundu...)
- Zentro Psikosozialeko, Zentro Okupazionaleko eta sentsibilizazio kanpainetako jardueretan kolaboratu.

Boluntarioaren helburu nagusia gaixoa entzutea eta laguntzea da, elkartasun esperientzia oinarrizkat harturik gizatasun giroa erraztuz.



Boluntarioaren profila:

- 18 urtetik gorako pertsonak.
- Elkartarekin kolaboratzeko astean ordu batzuk libre dituztenak.
- Pertsona konprometituak eta saiatuak.
- Diskrezioz, malgutasunez, arduraz eta errespetuz dihardutenak.
- Motibazio, ekimen eta sen ona dutenak.

Eta bereziki, laguntzeko gogotsu dauden pertsonak, arazo sozialekin sentsibilizatuak daudenak eta ikasteko gogoia dutenak.

✚ Kontaktua: Rocío Matías. Tel.94 4045564 / 94 4034690. <http://www.asasam.org/eu/direccion@asasam.org>

Talur Elkarte



✚ Jarduera-eremua:

✓ Dibertsitate funtzionala

1. Boluntariotza-programa: lehentasun eta erabilgarritasunaren arabera (partaidetza puntuala, aldizkakoa edo jarraitua)
 - ✓ Aisialdi jarduerak eta tailerrak: astelehenetik ostiralera, 17:30etatik 19:30etara
 - ✓ Oporrak: abuztua, aste santua eta abenduko zuba.
 - ✓ Irteerak eta jarduerak: larunbatetan eta asteburuak
 - ✓ Ekintzak astelehenetik ostiralera:
 - Musika
 - Aktibazio Kognitiboa
 - Sukaldea
 - Igerilekua
 - Mugitu gerria
 - Ibilaldi Osasungarria
 - Pintxo potea

✚ Kontaktua: Almudena. Tel. 688 867 306 (9:00etatik 7:00etara). voluntariado@talur.es
<https://talur.es>



Down Araba - Isabel Orbe



 Jarduera-eremua:

- ✓ Aisia eta astialdia Down syndromea duten pertsonekin

 Boluntariotza-programa:


Down Araba Elkartearen Boluntariotza Programa 1998 urtean sortu zen laguntza puntuala behar zuten familiek aurkezten zuten beharrari erantzuna emateko, ondoren profesionalizatu eta arrazionalizatuko zelarrik.

Programa hau, elkartearen zerbitzu edo programetan borondatez kolaboratzea erabaki duen 18 urtetik gorako edozein pertsonari zuzenduta dago.

Elkartearen ideia eta Aisialdi Programaren filosofiaren arabera, ondorengoak lirateke boluntario "perfektua" definituko lituzketen adjektiboak, hau da, boluntarioaren profila:

- ✓ Positiboa
- ✓ Dinamikoa
- ✓ Autonomia
- ✓ Ekintzailea
- ✓ Lagunartekoa
- ✓ Zentzuduna

Boluntariotzaren Barne Estatutuak dituzte eta izena eman ahal izateko programaren koordinatzailearekin elkarrizketa egitea nahitaezkoa da.

-  Kontaktua: María Tiscar Rico García. Aisia eta astialdiko eta boluntariotzako koordinatzailea. Tel: 945 22 33 00 <https://downberri.org/> ; programas@downaraba.org

 Jarduera-eremua:

- ✓ Garapenerako lankidetzak
- ✓ Emakumea eta genero berdintasuna
- ✓ Giza eskubideak
- ✓ Osasuna
- ✓ Bestelakoak: Bidezko merkataritza, Garapenaren aldeko Hezkuntza eta Sentsibilizazioa.

 Boluntariotza-programa: hiru programa dituzte.

1. Garapenaren aldeko Hezkuntza eta Sentsibilizazioa: sentsibilizazio ekintza hauek Arabako talde ezberdinei zuzenduta daude, gizarte transformazioaren alde eta elkarteak lehenesten dituen gaien alde (osasun eskubidea, ur eta saneamendu eskubidea, sexu eta ugalketa eskubideak, genero berdintasuna, bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua) dauden hiritarren partaidetzarako prozesuak sustatzea helburu dutelarik.

Halaber, gizarte errealitateetara gerturatzen eta giza eskubideen bortxaketak eta pobrezia gorakorra eragiten dituzten egitura arrazoiak aztertzen saiatzen dira.

Ikastetxetan, astialdi taldetan edo kaleko ekintzetan hezkuntza tailerrak dinamizatzeko prestakuntza jaso nahi duten pertsona dinamiko eta sortzaileak behar dituzte.

- Jardueren data eta ordu-tegiak:
 - ✓ Goizez astelehenetik ostiralera, 9:30etik 13:30era eta Proiektu batzordearen bilera puntualak, arratsaldean 16:00etatik 18:00etara.
- Baldintzak:
 - ✓ Giza eskubide, pobrezia-aren aurkako borroka eta genero berdintasunaren aldeko gizarte ardura eta konpromisoa izatea, beste herrialdeetako errealitateak ezagutu nahi izatea.
 - ✓ 18 urte baino gehiago izatea.
 - ✓ Ez dago parte hartzeko gutxienezko konpromisoa, boluntarioak nahi duen denbora eman dezake lanean, hala ere, konpromisoa gauzatzen den unetik aurrera, erabakitakoa betetzea nahitaezkoa izango da.

2. Gizarte-komunikazioa: Ondorengo zereginak burutuko dira: elkartearen web gune eta blogen edukien kudeaketa eta dinamizazioa, sare sozialak eguneratzea, urtean bitan egiten

diren informazio buletinak eta urteko memoria egitea (eduki informatiboak idatzi, editatu eta maketatu), hilero ospatzen den lan batzordearen bileran parte-hartzea (bertan zereginak banatu eta komunikazio ekintzak definituko direlarik). Eremu honetan komunikazio estrategia berriak bilatzen saiatzen dira beti, euren lana eta gizarte helburuak gero eta jende gehiagori helarazteko.

- Jardueren data eta ordutegiak:
 - ✓ Urte osoan zehar.
 - ✓ Goizez astelehenetik ostiralera, 9:30etik 14:30era eta Difusio batzordearen bilera puntualak, arratsaldean 16:00etatik 18:00etara.
- Baldintzak:
 - ✓ Giza eskubide, pobrezia aurkako borroka eta genero berdintasunaren aldeko gizarte ardura eta konpromisoa izatea, beste herrialdeetako errealitateak ezagutu nahi izatea.
 - ✓ 18 urte baino gehiago izatea.
 - ✓ Ez dago parte hartzeko gutxienezko konpromisoa, boluntarioak nahi duen denbora eman dezake lanean, hala ere, konpromisoa gauzatzen den unetik aurrera, erabakitakoa betetzea nahitaezkoa izango da.
 - ✓ Pertsona sortzaileak eta berritzaileak, berezko ideiekin eta ekintzaileak.

3. Bidezko Merkataritzako dendarako boluntarioak: Gasteizko Pio XII kaleko 18. zenbakian dagoen dendan egoteko:

- ✓ Denda honen helburu nagusia, kontsumo arduratsua, bidezko merkataritza eta osasun eskubidearekiko jendea sentikor bihurtzea da.
- ✓ Bidezko merkataritzako produktuak ezagutu eta saldu.
- ✓ Elkartearekin lan egiten duten ekoizpen-talde eta pertsonen buruzko informazioa eskaini.
- ✓ Denda eta erakusleihoa apaindu, dendaren logistika orokorra.
- ✓ Dendan eta kanpoan burutzeko jarduera eta ekimenak antolatu (sentsibilizazio eta kale ekintza puntualak).
- ✓ Azoka eta ekitaldietan parte hartu urtean zehar.

Zure lanaren truke ondorengoak eskaintzen dizkizute:

- ✓ Talde paregabe eta dinamiko batean integratzea.
- ✓ Elkartearen egiten dituzun jardueretarako pertsonalizatutako konpromiso hitzarmena eta boluntariorarako aseguruak.



- ✓ Boluntariotza aurrera eramateko baliabideak eta tresnak.
 - ✓ Ondorengo gaietan prestakuntza: kontsumo arduratsua, kontziente eta eraldatzailea, bidezko merkataritza, ur eta osasun eskubidea, sexu eta ugalketa eskubideak, genero aukera...
 - ✓ Gure hirian aldaketa motorra izateko edukiak eta gaitasunak eskainiko dizkizute.
- Jardueren data eta ordutegiak:
 - ✓ Goizez astelehenetik ostiralera, 9:30etik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara. Denda batzordearen bilera puntualak, arratsaldean 16:00etatik 18:00etara.
 - Baldintzak:
 - ✓ Pertsona sortzaileak, dinamikoak eta konprometituak.
 - ✓ Giza eskubide, pobreziaren aurkako borroka eta genero berdintasunaren aldeko gizarte ardura izatea.
 - ✓ 18 urte baino gehiago izatea.
 - ✓ Ez dago parte hartzeko gutxieneko konpromisoa, boluntarioak nahi duen denbora eman dezake lanean, hala ere, konpromisoa gauzatzen den unetik aurrera, erabakitakoa betetzea nahitaezkoa izango da.
- ✚ **Kontaktua:** Tel. 945 288031. ionander.areses@medicushmani.es

3. Web interesgarriak

[Alboan: boluntario izatea](#)

[Batekin](#)

[Boluntariotza Euskadin](#)

[Boluntariotzaren ataria](#)

[Boluntariotzarako plataforma](#)

[Haces falta:](#) boluntariotzarako eskaintzak